




BAINURA!



LIBURUAREN FITXA

Taro Gomi. *Bainura!* Pamiela-Kalandraka, 2011

AURKEZPENA

Jolas eta kontaketa aukera asko gordetzen ditu liburu honek bere baitan. Alde batetik, bainu aurreko arropa kentzea dibertigarria izan daitekeela ekartzen digu begi bistara. Arropa kentzea ezkutaketa eta mozerro jokoa denean, behintzat. Manexek mozerro batekin bestea estaltzen du, irakurlearen irrika eta interesa azken orriko sorpresaraino mantentzea lortzen duelarik. Txikitako “Kuku” jolasarekin du zer ikusia, hizkuntza sinbolizatzeko gaitasunarekin, hain zuzen ere. Aldi berean, gorputz atalak aurkezteko modu jolasti bat asmatzen du eta arropen izenak agertzen dira eguneroko jolas giroan.

KONTAKETA

- Orriz orri irrikan dago irakurlea hurrengo orriaren zain, aukerak igartzen: “zergatik esaten du lehoiak hori?”...
- Kontakizunaren erritmoa aldatu egiten da arropa aldaketa datorrenarekin batera: “nolakoa da alkondara? eta galtzak?... “Ba al dakizu zuk bakarrik janzten eta erantzten?”
- Baina ez da jolasa horretan bukatzeen; Manexi mozerrotzea asko gustatzen zaio.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Intentzio desberdinak azpimarra daitezke liburu honetan
 - o Mozorroek ezkututzen dituzten pertsonaia desberdinak
 - o Gorputz atalak eta horrekin batera, arropa desberdinak identifikatzea
- Bakarrik janzten eta erantzten zara?
- Zer da errazagoa?

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Hurrei proposatu gelaz kanpoko kontaketa bat egitea. Adibidez, etxean gurasoei edota aitona-amonei. Liburuaren Testua errespetatu kontatzen den bakoitzean.



- Paperez, ipuinaren ilustrazioak oinarri, “errekortable joko bat egin daiteke: Manexen gorputza oinarri hartuta, horren gaineko mozorro desberdinak sortuz. Haur bakoitzak berea egin dezake.
- Ipuina kontatzen ikasi: azpimarratu testu guztia haurra eta amaren arteko elkarrizketa bat dela.
- Ipuina kontatzen den bitartean, errekortableak kendu eta jarriko dira kontakizunaren harian.